

Notazioa: Konpasa

ABESTI GEHIENEN EZALGARRI
NAGUSIETAKO BAT **PULTSO**
ERRITMIKO KOHERENTEA DA.

PULTSO HAU BAT DATOR **KONPAS**
BATEKO ZATJETAKO BAKOITZAREKIN,
ALDI BAT DERITZONAREKIN.

KONPAS MOTA **BI** DAUDE:
ZATIKETA BITARREKOAK, KONPAS
BAKUNAK DEITZEN DIRENAK...



... ETA **ZATIKETA HIRUTARREKOAK**,
KONPAS **KONPOSATUAK**
DEITZEN DIRENAK.



MUSIKAN ERRITMOAK **AZENTUDUN** ETA **AZENTUGABEDUN** ELEMENTUZ OSATUTA DAUDE. EGIA ESAN,
ERREPIKATZEN DIREN NOTEN SEKUENTZIA BAT ENTZUTEN BADUZU ZIHURRENIK ZURE BURUAK
BI, HIRU EDO **LAU** NOTAKO TALDEAK EGINGO DITU NAHIZ ETA AZENTURIK EZ EGON!



TALDE HAUEK BAT DATOZ **KONPASEKIN** ETA BERAIEIN
ARTEAN **KONPAS-BARRAK** ERABILIZ MUGATZEN DIRA.

KONPAS-
BARRA

KONPASA

KONPASEN ALDIAK
ANTOLATZEKO
NEURRI-ADIERAZLEA
ERABILTZEN DA.
KONPOSIZIOAREN
HASIERAN JARTZEN
DIREN ZENBAKI
BIREKIN ZEHAZTEN DA.
KONPAS-ADIERAZLE
ERE DEITUZ.

KONPAS BAKUNEN ADIERAZLEAK ERRAZAK DIRA.

3
4

GOIKO ZENBAKIAK
KONPASAREN **ALDI-KOPURUA**
ADIERAZTEN DU.

BEHEKO ZENBAKIAK **ALDI**
BAKOITZEAN SARTZEN
DEN **NOTA-BALIOA**
ZEHAZTEN DU.



NOTEN BALIORAKO KODEA
HONELA DOA: **2** = ZURIA,
4 = BELTZA, **8** = KORTXEA,
16 = KORTXEAERDIA...

KONPAS KONPOSATUEK ORDEA GEZURRA ESATEN DIZUTE, NOLABAIT.

6
8

GOIKO ZENBAKIA **HIRUREKIN** BANATU BEHAR
DA KONPAS HORRETAKO **ALDI-KOPURUA**
JAKITEKO.

BEHEKO ZENBAKIAK **ALDI BAKOITZEAN**
HORRELAKO **HIRUREN NOTA-BALIOA**
SARTZEN DELA ESATEN DIGU. KONPAS
KONPOSATUETAN **ALDI BAKOITZAREN NEURRIA**
PUNTUDUN NOTA BATENA DA!

2



EGIA ESAN, EZ ZEN
IZANGO ERRAZAGO **KONPAS**
KONPOSATUAK HONELA
ADIERAZIKO BAGENITU?

SENTITZEN DUT...
ESKULIBURUAK
DIO **BESTE MODURA**
EGIN BEHAR DUZULA.



NEURRI-ADIERAZLEKO GOIKO
ZENBAKIA AZTERLUZ ONDORIO **BI**
ATERA DAITEZKE: KONPASA **BAKUNA**
EDO **KONPOSATUA** DEN, ETA KONPAS
BAKOITZEAN ZENBAT **ALDI** DAUDEN.

	BAKUNA	KONPOSATUA
2	2	6
3	3	9
4	4	12

KONPASEKO
ALDI-KOPURUA

MAKOAK EDO **KORTXETEAK**
DITUZTEN NOTAK MAKO ADINA
MARRAZ LOTU DAITEZKE.



DENA DELA, **MARRA** HAUEK **ALDI BERDINAREN BARRIAN** DAUDEN
NOTETAN BAKARRIK ERABILI DAITEZKE. OROKORREAN, **ALDI**
DESBERDINETAN DAUDEN NOTAK EZ ZENITUZKE LOTU BEHAR **MARRAZ**,
EZ ETA **LIGATU** ALDI BEREAN DAUDENAK.

